


# Arrasate


P R E S S

1996ko  
Irailak 20  
332. zenb.



**Xabier Zubizarreta (HB)**

*"Gehiago moduan definitzen diren batzuk oposizioan egotea ez dut uste zintzo jokatzeko denik"*



**Jose Mari Lorti (EA)**

*"Aurrekontuetan oposizioarekin akordioa ez lortzeak dena esaten du gobernuaz. Hori ez da gobernuia"*



**Ignacio Jimeno (PSE-EE)**


*"Badirudi HB eta EBa bakoitza bere aldetik doala. Ez dirudi oso akordio finkoa"*

## Urtebeteko udal gobernuia




**Isabel Gallastegi (EA)**

*"Orain oposizioa desberdina da, lanean gabiltza, mahai gainean gure irizpideak jarritz"*



**Joseba Ugalde (EB-IU)**

*"Hirukoak gobernuaren ahultze politika egin du, alkatea dimisioa aurkeztera behartu guran"*



**Antonio Palacios (PP)**

*"Gobernuak egunean egunekoa bizi du, lau urteei begira ez dute proiektu bat"*

## alderdi buruen berbetan



**Zeramika  
erakusketa  
eta salmenta**

Uribarri Etorbidea, 22-B  
Tfnoa: 79 81 80 • Faxe: 79 81 80  
ARRASATE



***Modaren bizkuntza.  
Jantzi eta osagarritan  
udazken-neguko  
modaren berrikuntza  
guztiak.  
Zatoz ezagutzera!***



Erdiko Kale, 14 • Tfnoa: 79 46 94 • ARRASATE

# Nortzuk dute enplegua sortzeko ardura?

**E**z dirudi oso garbi dagoenik gizarteko zein alorrek duen enplegua sortzeko ardura, gizarteari lan aukerak eskainitzekoa, lanaren inguruan eraikita dagoen zibilizazio honi. Lana ez da bizi ahal izateko diru iturri soila, nahiz eta momentuz besterik ez den ezagutzen, baizik eta gizakiaren dimentsio gizaeragilea, gizarte erreferentzia.

Hainbesteko garrantzia duen gaia izanda, aldeak honela definitzen dira:

Enpresari kapitalistek eskuak garbitzen dituzte esanez bere eginberrara inbertitu dutena baino diru gehiago irabazten hasi eta bukatzen dela. Enplegua ondorio bat da, ez helburu nagusia. Sortzen badute ondo, bainan beraien ideia mugitu eta transakzionatzea da, ahal bada bakarrik. Kapitalista garbienaren eredia da hori.

Enpresari ideologizatu, adibidez kooperatiboa edo estatua, orokorra baino kasu bakarragoa da hau.

Sindikatuak diote ez dagokiela beraiei. Beraiena langilea kapitalisten explotazioa-erengandik defendatzea da, eta langileak erabiltzen duen edonorengandik, enpresa nazionalizatu izan edo estatua izan. Eta ez dira kezkatzen, edo behintzat ez dute aparteko trebetasunik eroso sentitzen diren egitura burokratikoak kritikatzekoan. Baina bestalde, egia da beraien lanik gabe ez liratekeela lortuko gizarteak gaur egun normaltaz jotzen dituen ongizate mailak. Zer gertatuko litzateke langileekin, diruaz gain beste arimarik ez duen klase baten eskuetan balego?

Administrazio publikoa, estatua, gizarte zuzenaren bermatzaile bezala, mundu enpresarialetik aldetzearen zalantza dago, merkatu askeak aldarrikatzen duen marea hiperliberalaren eraginez, estatuaren hatzaparretatik sortua. Alarma hotsak nagusitzen ari dira klaseen eta herrialdeen marginazioa bere barnean sentitzen duen

gizarte honetan, gestio pribatuaren joku librearen menpe.

Eta gainera teknologiaren eta merkatu anitzaren iraultza, iraganeko uste denak hankaz gora jartzen ditu eta momentuz ez du kosteen konparaketaren legeaz aparte besterik ezagutzen.

Eta puntu honetara iritsita ikusten da bata besteari leporatzen diola errua, eta etxea garbitu barik: lanpostu barik. Norbaitek aldatu beharko du egoera. Enplegua sortzeko ardura dutenak ezin dira geldirik eta begiak itxita egon, baloik kanpora boteaz.

Alde desberdinen artean derrigorrezkoa da konpromezu handi bat, merkatu anitzaren baldintzen aldaketei begira. Hain eskasenez, argi dago enpresariari bidea erraztu behar zaiola inbertsioan saia dadin. Ezin zaio arrazoi morala eskatu, aberats egin dadila, enbidia sortzen duen egoeraz goza dezala, baina has dadila eta enplegua sor dezala nahiz eta hori ez izan bere gogoia.

Sindikatuak beraien eguneroko jarduera berrikustea eskatu behar zaie, neurri batean beraien ikuspegi korporatiboa alboratzea eta ikuspegi sozialaren alde eta enpresa integrazioaren alde egin dezatela, euren eskakizunak enpresaren martxarekin bat etor daitezke. IPC edo KPI automatismoa ezinbestean mortala izan daiteke.

Estatuari eraginkortasunaren alde egitea eskatu behar zaio, gestio pribatuari ahalik eta esparru zabalena utziz, merkatuak berez lortu ezin duen funtzioa berak beteaz, edo zuzena ez denaz, eta errentaren banaketaz.

Eta azkenik gizarte zibikoa, geldirik egon behar ez dena, besteek arazoak noiz konponduko zain. Eskenategi sozialean agertu behar du, eta aldeak sormen formulak aurkitzera bultzatu, komunitatea dagoen tokietan sentsibilizazio eta gestio komunalen foroak antolatu.

**JESUS LARRAÑAGA**

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tfnoa: 79 76 58  
ARRASATE

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK

Laminak, Izpiluak,  
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95  
ARRASATE

**Memesa**  
79 42 22



**ARRASATEKO UDALA**

Aldizkari honek Arrasateko  
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jauriaritzako Kultura  
Sailaren laguntza jaso du

## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Alberto Garro eta Kaitlin Allende (Tfnoa: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantza Loiz, Mikel Irizar, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rifa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Franeko kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkiak:** Beñardo Kortabarria



LOGOPEDIA  
ZENTRUA  
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTZ ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.  
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

## LILYRA OIHALAK Maritxu Kajoirako

- Zeure soinekoak egiteko oihal eta osagarrietan aukera zabalena
- Soinekoak moztu eta josten dira
- Egindako soinekoak saltzen dira
- Oso prezio onak

Zerkaosteta kalea, 5 behea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 89 72

## ARRASATEKO GIZARTEARI

Herenegun, irailak 11, eta gaueko hamabi terdiak aldera, Jacques Joanny ingeniariartzako ikasle frantziarra-ri kotxea erre zioten Arrasate pasealekuan, matrikula frantsesa zuelako.

Mondragon Eskola Politeknikoaren (MEP) bitartez etorri zen mutil hau ekainean Toulousetik, klaseak amaitu eta hurrengo egunean, uda partean enpresaren batean praktikak egin eta diru apur bat irabaztera. Horrela, Oñatiko Ulma Construcción kooperatibako bulego teknikoan aritu da lanean gaur arte, irailak 13, eta datorren astelehenetan klaseak hasiko zaizkio berriro. Ehun mila pezeta jaso ditu hilero bere mantenurako eta bidaietarako, eta Arrasaten pisu batean bizi izan da beste ikasle batzuekin.

Erre dioten kotxea duela bi urte jubilatuta bati erositako bigarren eskuko Peugeot 205 bat zen. Hamazazpi mila eta bostehun franko kostatu zitzaion, eta Jacques-en ustez, hamaika urte eduki arren oso egoera onean zeuzkan motorra eta txasisa, jubilatua urteko hamar mila kilometrotik

behera egiten ziolako. Kotxea erosteko dirua, udako oporretan lanean arituta aurreratu zuen, etxean ez baitaukat aparte egoera ekonomikorik.

Arrasate edo inguruetako enpresetara praktikak egitera atzerriko ikasleak ekartzearren arazoia zera da, MEP-ek ere urtero bidaltzen dituela berrogeiren bat ikasle arrasatear eta ez-arrasatear bai Toulousera, bai Nantesera, bai Grenoblera edo Frantzia nahiz beste bost naziotako hainbat hirietara. Horretxegatik, mugimendu bikoitza dago, bertokoak atzerrira bidaltzen ditugun bezalaxe kanpotarrak Euskal Herrira dakarkigulako. Aktibitate honek 1972. urtetik hona dirau, eta MEP-en asmoa orain arte bezala jarraitzea da, gutziz konbentziturik baitago iharduera honek ez diola inori kalterik egiten eta bai osterara mesede galanta hainbat gazteri.

Amaitzeko, eta beti ere Mondragon Eskola Politeknikoaren iritziz, ez dirudi atzerriko ikasle fin baten bigarren eskuko kotxe merke bat erretzeak norbaiti edo zerbaiti mesede handirik ekarriko dionik. Aldeko kideei endreduak sortzeko lain balio

du, baina hortik aparte, ez du ematen beste ezertarako balio duenik.

**IGNACIO LAKUNZA,  
ESKOLA POLITEKNIKAKO  
ZUZENDARIA**



### Eskerrik asko Haritz!

Auto istripuz hil zitzaigun Aritz Etxeberria joan den asteburuan. Gogor astindu gintuen bere heriotzaren berriak, eta tristuraz bete. Behin baino gehiagotan izan dugu ARKOn Haritzen laguntza, Gabonetako egutegian esate batera.

Egindako gutziagatik eskerrik asko Haritz, eta doluminik sentikorrenak etxekoei eta lagunei.



*Kalitate gorena leihuetan*

**LANTEGIA ETA ERAKUSKETA**

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



Zure ohiartzuna bizirik dago eta ez da inoiz itzaliko zure hitzen dizdira. Izar berri bat piztu da zeruan eta zure lagunok gauero izango zaitugu inguruan orain artean moduan.

Ez zaitugu ahaztuko

ZURE LAGUNAK

# Nola baloratzen duzu gobernu taldearen urtebeteko lana?



**Maria Luisa Perez**  
(56 urte)  
Langilea

Ni pozik nago udalak herrian egiten duenarekin. Dena dela, erdaldunak apur bat diskriminatuta gaudela uste dut.



**Patxi Mentxaka**  
(68 urte)  
Jubilatua

Ni HBkoa naiz eta zer esango dizut ba? Gobernu taldean badira gustoko ez zaizkidan batzuk baina orokorrean urte politiko ona izan dela uste dut.



**Txoni Garcia**  
(36 urte)  
Langilea

Gobernu talde berriak ezer egin ez duela uste dut. Alderdi politiko guztiek sakabanatuta jarraitzen dute eta horrek ez die usten herriaren alde ezer egiten.



**Esther Garcia**  
(40 urte)  
Langilea

Politikoki herrian aldaketa handirik egon ez dela uste dut, gainera gobernuakideen artean gauzak argi ez dituztela ikusten dut. Eurak euren buruarekin oso nahastuta daude. Herria guztiz desorientatua daukate.



**Pepi Gorosabel**  
(47 urte)  
Etxekoandrea

Ez dakit zer esan, ez dut herriko politika jarraitzen ez dut horretaz ulertzen eta.




**Tomas Sanchez**  
(43 urte)  
Pentsioduna

HBk politika nahasgarria egiten duela uste dut, gauzak gehiago definitu beharko lituzke. Politika nahasgarri horrek herrian eragina izan duela uste dut.



**Txomin Vaz**  
(33 urte)  
Langilea

Politika kontuek ez didate axola eta gainera alderdi guztiek gauza bera egiten dutela uste dut. Politikoki ez dakit zer gertatu den Arrasaten azken urte honetan.



**Jose Luis Gomez**  
(48 urte)  
Langilea

Balorazio ona egiten dut, ez daukat kezurik. Azken urte honetan gobernu taldeak herriarentzat gauza onak egin dituela uste dut, batez ere garbitasun kontuetan.



MARKO-JARTZEAK

**ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE

Tfnoa: 79 13 05 • Faxe: 79 13 84

*Casa Ceciaga*

MARITXU KAJOI EGUNERAKO:

- Maritxurako bereziki ekarritako oihal eta osagarri ugari aukeran.
- Zeure gustoko soinekua egingo dizugu dotore joan zaitezten.

Maalako Errabala, 3 • ARRASATE • Tfnoa/Faxe: 79 12 62

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. ....79 53 00  
 Iguatorialdea .....79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) .....79 39 00  
 (emakumeak) .....79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua .....79 90 11

**Gurutze Gorria**  
 Bergara .....76 55 76

**DYA**  
 Antzuola .....76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) .....79 13 57  
 • Txanda hartzeko: medikuntza  
 orokorra eta pediatria .....77 03 46  
 • Espesialitateak .....77 05 78  
 77 12 64  
 Oñati .....78 08 52  
 Eskoriatza .....79 98 58  
 Aretxabaleta .....79 74 58  
 Aramaio .....(945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulanziaz .....45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati .....78 04 11  
 Bergara .....76 14 69  
 Arrasate .....79 14 39  
 Aretxabaleta .....79 10 52  
 Eskoriatza .....088

**Ertzaintza**  
 Arrasate .....79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea .....79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua .....79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .....088

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) .....79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) .....12 01 62  
 Gasa .....900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak .....79 12 22  
 P.E.S.A. ....79 14 19

**Hirugarren adinekoendako zentruak**  
 Iturbide Egoitza .....79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza .....79 81 57

**Kontsumitzailearendako informazioa**  
 KIUB-OMIC .....79 51 55

**Monterongo liburutegia**  
 Monterron .....77 01 05

**Irratia**  
 Arrasate Irratia .....79 58 77

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 20**  
 Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerías.

**Larunbata 21**  
 Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.

**Igandea 22**  
 Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.

**Astelehena 23**  
 Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.

**Asteartea 24**  
 Egunez eta gauez: Amezua. Santamaina.

**Asteazkena 25**  
 Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.

**Osteguna 26**  
 Egunez eta gauez: Morales. San Andres.

**20 OSTIRALA**

• ZINEA  
 "Twister" 7etan eta 10etan.



**ARTE ERAKUSKETA MONTERRONEN**

**Irailaren 23tik urriaren 3ra Aita Menniko gaixoeak egindako pintura eta zeramika erakusketa Monterronen. Ordutegia: astelehenetik ostiralera arratsaldeko 6etatik 8etara. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara.**



**27. NAZIOARTEKO ARTZAIN TXAKURREN LEHIAKETA**  
**Oñatiko Santa Luzia zelaian 27. nazioarteko artzain txakurren trebelanen lehiaketa burutuko da. Euskadiko ardi txakur onenek nazioarteko aurrean erakutsi beharko dute zer egiteko gauza diren. Lehiaketa goizeko 11etan hasiko da**

**21 LARUNBATA**

• ZINEA  
 "Twister" 5etan, 7etan eta 10etan.

• ALZHEIMER GAIXOTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

• KIROLDEGIKO BILERA  
 Musakola eta Iturripeko frontoiak, futbot, tenis eta squash-heko kantzak alokatzeko interesa dutenek bilera izango dute Musakolako bulegoan goizeko 11etan.

• KONTZERTUA GAZTETXEAN  
 Gaueko 10etan kontzertua Arrasateko Gaztetxean. Londresko "Coitus" eta Aguirango "Salvate si puedes" taldeak eskainita.

**22 IGANDEA**

• ZINEA  
 "Twister" 5etan, 7etan eta 10etan.

• EUSKO ALKARTASUNAREN X. URTEURRENA  
 Eusko Alkartasunaren X. urteurrena dela eta, Lizarran ospatu behar den jaialdirako autobusa goizeko 10etan Gari-baitik.

• ASCHERO SISTEMA MUSIKALAREN EMANALDIA  
 Arrasate Musikaleko ikasleek aschero sistema musikalaren emanaldia eskainiko dute arratsaldeko 4.30etan Legutiotiko Kultur Etxean.

• NEKAZARITZA BIOLOGIKOAREN II. AZOKA  
 Gipuzkoako nekazaritza biologikoaren II. Azoka Zerain herrian. Ordutegia: goizez 11etatik 2.30etara eta arratsaldeko 4.30etatik 7etara. Deba Garaiko Biolur taldeko partaideek antolatuta.

• ARDI TXAKUR LEHIAKETA OIÑATIN  
 Santa Luzia zelaian goizeko 11etan.

**UDAZKENEKO LEHEN FRONTENIS TXAPELKETA**

Urriko larunbatetan jokatuko dira partidua goizeko 10.30etatik 2.30etara eta arratsaldeko 4.30etatik 6.30etara. Izenematea Musakolako kiroldegian irailaren 26a baino lehen. Prezioa bazkideentzat 400 pta. eta ez direnentzat 800 pta.

**23 ASTELEHENA**

• **ZINEA**  
"Twister" 7etan eta 9.30etan.

**MENDI IRTEERA BESAI-  
DEREKIN**

*Irailaren 29an Behorlegira mendi irteera. Izenematea irailaren 24, 25 eta 26an arratsaldeko 7.30etan 8.30etara Besaideren egoitzan.*



**DANTZA IKASTAROK**

Euskal dantza ikastaroa Lore Gazteak dantza taldearen eskutik. 15 urtetik gorakoei zuzenduta. Ikastaroa urriaren 11tik abenduaren 13ra emango da ostiraletan arratsaldeko 7etatik 8.30etara. Matrikula 1.000 pta. Izen ematea Gazte Bulegoan 77 00 65 zenbakira deituta. Gazteria sailak antolatuta.

**24 ASTEARTEA**

• **ZINEA**  
"Twister" 7etan eta 9.30etan.

• **ENKARTELADA ETA MANI-  
FESTAZIOA**

Gurutze Yantzi eta Xabier Galparsoreoren heriotzen 3. urteurrenean, omenaldi gisa, hainbat ekintza antolatu du Arrasateko Gestorak. 7etan Senideen enkartelada eta 7.30etan Manifestazioa Seberon "Torturarik ez" lemapean.

**25 ASTEAZKENA**

• **GRIPEAREN AURKAKO  
TXERTOIA**  
San Andresko alkatetzan goizeko 12etatik ordubata arte.

**HASERAKO MASAIA  
IKASTAROA**

*Lasaietarako masaia oinarriz hartuta ekialdeko eta mendebaldeko masai desberdinak erakutsiko dira. Ikastaroaren hasiera irailaren 28an, bukaera 14an. Larunbatetan emango dira klaseak arratsaldeko 5etatik 8etara. Emalea: Jose Luis Armentia. Interesatuok deitu 79 35 76 zenbakira. Arrasate Yoga Elkarteak antolatuta.*

**26 OSTEGUNA**

• **ZINEA**  
"Drácula" 7etan eta 9.30etan.

• **GRIPEAREN AURKAKO  
TXERTOIA**  
Abaroan eguerdiko 12etatik ordubata arte.

• **OSASUN ESKOLA**  
Elkarrizketak, tailer praktikoak, herriko sendagintza naturistari buruzko gaiak. Arratsaldeko 7.15etan Jose Luis Iñarra 18-B "Natura enea"-n. Informazio gehiagorako deitu 79 35 76 zenbakira.

**NAFARROA OINEZ 96**

*Urriaren 13an Etxarri Aranzan ospatuko da Nafarroa Oinez. Aurten Andra Mari ikastolari egokitu zaio antolatzea eta laguntza behar dutenez, horretarako norbait gertu balego izena eman dezala AEDn, telefonoa: 77 12 28.*

**TAICHI-CHUAN IKASTAROA**

Irailaren 19 eta 20ean Chikung meditazio ikastaroa Barriako aterpetxean. Izenemateko epea urriaren 4an gaueko 8.30etatik aurrera. Antolatzailea Valentin Zurbano. Informazio gehiagorako deitu 71 41 91 zenbakira.

**Elena**

Bizkaia Etorbidea, 1 etxebaia ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

**ARGI PLASTIC**

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atekak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua  
konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilioa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE

**Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta  
Serrano Doktorea**

HAURDUNALDLIA  
AMNIOZENTESIA  
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA  
BASEKTOMIA  
BULAR PATOLOGIA

**SAN MARTIN OSASUNDEGIA**

Ramón M. Lili, 2 BERGARA  
Tfnoak: 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

**Daewoo-koak  
Arrasaten**

Astelehen goizean Arrasatera etorri ziren Daewoo-ren ordezkariak. Multinazional korearreko lehendakaria helikopteroz heldu zen herrira. MCCren ordezkariekin bildu eta Korporazioaren jarduna gertutik ezagutzea izan ziren bisitaren helburuak. Ondoren, Eskoriatzan izan ziren Fagor Ederlan ezagutzen.

**Hamabost edukiontzi  
erre**

Joan den astebukaeran hamabost edukiontzi erre zituzten Arrasaten.

Erdialdeko, Erguin auzoko eta Jose Luis Iñarrako edukiontziei eman zieten su. Zubillagako suhiltzaileek etorri behar izan zuten sua itzaltzera.

**Dei faltsua**

Joan den zapatuan dei bat jaso zuten Ertzaingian Arrasateko EAren egoitzan bonba bat zegoela esanez. Ertzaintzak egoitza miatu zuen baina ez zuen ezer aurkitu.

**Udaletxeko langileen  
kontzentrazioa**

Udaletxeko arkupetan bildu ziren joan den ostiralean Arrasateko Udaleko langile batzuk, euskal presoek bizi duten sakabanaketarekin ados ez



**Besaide Eguna**

Eguraldi ona lagun, toki desberdinetatik etorritako jende asko bildu zen domekan Besaiden. Txalapartarekin, mezarekin eta kantaldiarekin lagunduta, azken urtean hildako zazpi mendizaleak omendu zituzten Besaiden. Hil den mendizale kopuruari dago-kionez, urte hau azken hamabi urteetako jatorrena izan dela esan zuen Pako Iriondok. Mendi Federakuntzako lehendakariak, gainera, sekula baino federatu gehiago dagoela azpimarratu zuen.

daudela adierazteko. LAB eta ESK sindikatuek deituta egin zen kontzentrazioa Gipuzkoako beste herri batzuetan ere egin zen.

**Haritz Etxebarria hil**

Haritz Etxebarria Ezpeleta, 23 urteko gazte arrasatearra, igande eguerdian hil zen Bergaran izandako istripuaren ondorioz. Haritz, bere anaia Alain, eta beste hiru lagun zihoazen autoak beste batekin elkar jo zutenean gertatu zen istripua. Suhiltzaileek autoaren txapa moztu behar izan zuten barruan geratu ziren bost lagunak ateratzeko.

Istripuaren ondorioz, bost lagun ingresatu behar izan ziren Eskualde Ospitalean. Alain, berriz, Txagorritxuko zainketa berezien unitatean dago ingresatuta. Anaia arriskuz kanpo dago baina femurra apurtuta duenez ebakuntza egingo diote.

Astelehenean Haritzen aldeko hileta elizkizunak egin ziren San Juan parrokiari. Jende ugari hurbildu zen Haritzi azken agurra ematera. Gaztea ezaguna zen herrian, besteak beste Iskanbila musika taldeko partaidea zen eta.

Herrizaingo Sailak, bestalde, lekukoak eskatu ditu istripuaren nondik

norakoak argitzeko. Istripua ikusi dutenek 943-29 02 11 telefonora dei dezakete.

**JAIOTZAK**

- Josu Kortabarria Lizarraga. Irailaren 10ean.
- Maia Iribekampos Zubillaga. 10ean.
- Iban Hernando Roman. 10ean.

**EZKONTZAK**

- Fermin Uribealzo Errasti eta Ana Maria Sanchez Tena. Irailaren 14an. Elizatik.

**HILDAKOAK**

- Juana Kortazar Galdos. Irailaren 7an. 84 urte.
- Francisca Madinabeitia Lamarain. 8an. 87 urte.
- Fernando Santamaria Lekunberri. 6an. 62 urte.

**HIES EKIMENA**  
Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.  
Tfnoa: 79 26 99

**CE** **ERRASTI KRISTALDEGIA**  
Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak  
Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**GORKA**  
**ILEAPAINDEGIA**  
**SOLARIUMA**  
Ferreries, 35 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 78





Joaquin Bedia \*

## Denok gripearen aurka

**G**ripearen aurkako txertoak eta prebentzio neurriez hitzegiten hasi aurretik, komenigarria izango litzateke gripearen ezaugarri kliniko azpimarragarrienak aipatzea.

Gripe gaixotasun infektiosoa da, Influenza birusak eragindakoa. Birus honek itxura desberdin asko hartzen ditu, eta batez ere arnasketa sisteman izaten du eragina, izurrite erara aurkeztuz. Birusa bera oso aldakorra denez urtero berregiten da txertoaren konposizioa, aurreko denboraldiko birusei egiten zaien jarraipenaren ondoren Osasun Mundu mailako Erakundearen aholkuei jarraituz.

Gehienbat neguan agertzen da gripea eta oso erraz zabalitzen da, eta itxura baten gaixotasun gaiztoa ez izan arren, biztanlegoaren talde jakin batzuetako arriskutsua izan daiteke. Txertaketa kanpaina, hain zuzen ere, arrisku talde

horiei zuzentzen zaie, txertoaren bidez gripeak izan dezakeen eragina ekidin edo gutxitzea bilatzen da eta.

Gripearen sintoma nagusiak honako hauek dira:

- Sukarra.
- Hotzikarak.
- Ondoeza.
- Arnasketa sistemaren geldotasuna.
- Burukominak.
- Giharretako minak.

Normalean 3-5 egunetan sendatzen den gaixotasuna da, nahiz eta zuzperraldi denbora luzeagoa izan daitekeen. Tratamendua normalean sin-

.....

***“Infekzio arazorik sortzen ez den bitartean, ez litzateke tratamendu antibiotikorik ezarri behar”***

tomatikoak izaten da (kalenturaren aurkako botikak, minaren aurkakoak, atsedena, ura edatea...) eta infekzio arazorik sortzen ez den bitartean, ez litzateke tratamendu antibiotikorik ezarri behar.

Gripearen aurkako txertoaren gaiari helduz, lehenik arrisku taldeak zeintzuk diren aipatuko dugu:

- a) 65 urtetik gorakoak.
- b) 65 urtetik beherakoak, baina gaixotasun kronikoren bat dutenak, gripearen ondorioz txartu egin daitekeena:
  - Bronkitisa, asma, arnasketa arazoak...
  - Bihotzeko gaixotasunak.
  - Diabetesa.
  - Gibeledko eta guntzurrunetako gaixotasunak.
- c) Zainketa berezi, dialisi talde, onkologiko, neumologi, eta zaharren egoitzetan lan egiten duten osasun langileek.

Osakidetzak aurtengo txertaketa kanpaina ezarri dituen helburuak honako hauek dira:

- Egoitzetan eta abarretan bizi diren 65 urtetik gorako %95aren txertaketa. (iaz %97,2 Deba Garaian)
- 65 urtetik gorako %60aren txertaketa. (iaz %59 Deba Garaian)

Aipatutako arrisku taldeetako ahalik eta jende gehien. (65 urtetik beherako 1.575 txertaketa iaz, horietatik %10a arrisku taldeetatik kanpokoak zen).

Bukatzeko, eta laburtuz esango nuke arrisku taldeetan txertoa jartzeak garrantzi handia duela, gripea hartzeko arriskua gutxitzen duelako, eta pasatzekotan motelagoa izaten delako.

**LAGUN AROKO SENDAGILEA**

## USTEAK USTE

### PILOTA BOROBILA

**Lanetik irten eta afaldu ondoren, telebista aurrean esertzea asko gustatzen zait. Gainera, jende asko bezala, abila naiz zappinga egiten. Azkenaldian ordea egunero programa berbera ikusten dut, berdin dio zein katetan: FUTBOLA!. Eta niri zappinga egitea asko gustatzen zaidanez, egunero kate bat zapuzten didate.**

**Igandetan Realak zer egiten duen? beno, hori bai, baina, futbolmania hau, egunero patata tortila jatea bezala da, azkenean nekatu egiten du.**

**Eta niri zappinga egitea gustatzen zaidanez, pelikula edo dokumental eder bat ikusteko aukera bat gehiago kentzen didate. Futbolak gainera hosteleritzan eta beste zenbait sektoretan nolako kalteak egiten dituen ikusita, egunero 22 lagun pantailan pelota baten atzetik korrika ikusi beharra gehiegi da.**

**Gainera futbolari horrelako garrantzia ematen badiote, zer gertatuko da, saskibaloia, eskubaloia eta zer esan kirol minoritarioekin?**

**Akaso beste puntu batetik begiratuta ez dago hain gaizki, ea behin betirako jendea futbolmania honekin asetu edo nazkatzen den, eta gauzak bere onera itzultzen diren. Honek forofoena ere nazkatuko duelakoan nago.**

**ION ALDANONDO**

### BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABALETA

## BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua  
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak  
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 55 82

## UGARTE

Industri  
hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00  
Telefax: 793412



San Andresekoei ibilbidea laburtu asmoz aldatu da lekuz geltokia.

## Gutxi barru autobus geltoki berria Garibain

Garibain egiten ari diren autobus geltoki berria bukatzeaz dago. Datozen egunetan espaloiko obra amaituta egongo da, eta geltokia erabiltzeko moduan egon dadin, seinaleak jarri eta errepidea margotzea baino ez da faltako. Udalak 1.300.000 pezeta gastatu ditu geltoki berria egokitzen.

Ibilbide luzeko autobusak San Andreseko geltokian geratzen ez direlako egin da aldaketa. Orain Abaroa aurrean jarri da geltokia, San Andresekoei ibilbidea zerbait laburtu asmoz. Beraz, Gasteizera joateko geltoki horretan hartu beharko dute autobusa San Andresekoek.

### Aixolarekin joan eta etorri

Aixola elkartearen autobus zerbitzuan ize-na emateko epea zabalik dago, eta dagoneko inguruko 39 ikaslek egin dute zerbitzu hori erabiltzeko eskaria. Arrasatetik zehazki 25 ikaslek egin du izenematea eta gehienak Bilbora joango dira. Iaz ehun lagun baino gehiagok erabili zuenez zerbitzua, oraindik ere kopurua handitu egingo dela pentsa daiteke.

Autobus zerbitzua ikasle unibertsitari edo ez unibertsitarietara zuzenduta dago bakarrik, eta hileroko 12.000 pezetako kuota ordaindu behar da.

### Goio Etxabe epaitu

Joan den astelehenean Goio Etxabe arrasatearra epaitu zuten Entzutegi Nazionalan. Epaietan fiskalak 31 urteko kartzela zigorra eskatu zuen. ETako kidea izatea eta armak eta lehergailuak gordetzea leporatzen diote arrasatearrari. Urriaren lehenengo astean aterako da sententzia.

### Albina Madinabeitia hil

Asteazkenean, Albina Madinabeitia bibolinjole ezaguna hil zen Arrasaten 87 urte zituela.

Bartzelonako kontserbatégian eta Madrilen eman zituen lehen urratsak Albina. Madrilen hainbat sari lortu zuen eta hango Orkestra Sinfonikokoan bakarlarri gisa aritu zen. Gerra Zibila amaitutakoan Bilboko Orkestra Sinfonikoan hasi zen jotzen, ondoren Espainiako Sinfonikora sartzea lortuz.

1979an jubilatua eta Arrasatera bueltatu zenean Arrasate Musikalen eskolak ematen hasi zen.



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



EUSKAL HERRIA  
EUSKALTEGI  
BIHURTU DUGU!  
EUSKARA IKASTAROAK

Informazioa eta matrikula:  
ERDU-AEK EUSKALTEGIA  
Garibai kalea, 14-3.  
Tfnoa: 77 03 69

Matrikula epea:  
IRAILAREN 27ra arte.



UDALAREN LAGUNTZAZ.  
BEKA SISTEMA.

Martxa eta estilo handiko erropa.



*Gili Gili*

BERRIRO ARRASATEN!

Iturriotz, 9 • Arrasate • Tfnoa: 79 81 82

# DANTZA IKASTAROAK

## *Euskal dantzak*

- “Lore Gazteak”  
Dantza Taldearen eskutik.
- 15 urtetik gorakoei zuzenduta.
- Urriaren 11tik abenduaren 13ra.
- Ostiraletan, 7etatik 8.30etara.
- Matrikula: 1.000 pta.
- Plaza mugatuak.



## **ETA LASTER...**

*Dantza karibearrak:  
salsa, merengue, bachata...*

Izen emateak: Gazte Bulegoan (77 00 65)



ARRASATEKO UDALA

Gazteria Saila





Diputazioak adierazi duenez, Azpeitiko Lapatx zabortegira eramango dira Deba Garaiko zaborrak.

## Zaborrak azkenean Lapatxeko zabortegira

Astean bilera izan dute Deba Garaiko Mankomunitateko ordezkariak Diputazioan, eta han jakinarazi dietenez, abendutik aurrera Azpeitiko Lapatx zabortegira eramango dira Deba Garaiko zaborrak. Joan den astean emandako prentsaurrekoan inguruko zaborrak Sasietara eramango zirela aurreratu bazuten ere, aukera hori momentuz alde batera utzi da Sasietakoan denbora eramango duten obrak egin behar direlako.

Abendutik, AKEI isten denetik aurrera ere, orain arte moduan jasoko dira inguruko zaborrak. Kamioiek etxeetatik ateratzen ditugun zaborrak jasoko dituzte eta jarraian

AKEIra eraman. Behin AKEIra helduta, kamioi handi batera pasako da zaborra ondoren Lapatxera eramateko. Zaborra zuzenean kamioi handi horretara pasatzeko, 65 milioiko inbertsioa eskatuko duten aldaketa batzuk egin beharko dira AKEIn. Proiektuan jasotzen denez bi transferentzi gune erai-kiko dira, eta hilabeteen obrak eginda ego-  
tea espero da. Obra horiek Diputazioak finantzatuko ditu.

Deba Garaian egunero 118 m<sup>3</sup> zabor jasotzen dira eta Lapatxera zaborra eramango duen kamioiak 50 m<sup>3</sup> eramateko gaitasuna du.

### Udaltzainak onera egin

Irailaren 1ean moto istripua izan zuen Nemesio Garrido udaltzainaren osasun egoerak onera egin du, eta egunotan zainketa berezien unitatetik alta emango ziotela espero zen. Nemesiok Kanpazarren izan zuen istripua, eta koman ingresatu zuten Santiago ospitalean.

### Alegazioetarako aukera

Urriaren 9ra arte aukera izango da Lurzoru Hiritarrezineko Arau Subsidiarioan egin diren aldaketei alegazioak aurkezteko. Bestalde, Zerrajera inguruan egin den aldaketa jasotzen duen laburpena ere jendeaurrean da nahi duenak ikus dezan. Aldaketa horren arabera, orain etxebizitzak ere egingo dira orube horretan.

### Erreka garbitu

Muxibar inguruan Aramaio erreka garbitzeko proiektua ontzat eman du Udalak. Erreka estalita dagoen zatia izango da garbituko dena.



# URONDO

elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

# Banatu ditu Udalak hirugarren mundurako dirulaguntzak

Aurtengo aurrekontuetan hirugarren mundurako zuzendutako 4.300.000 pezeta hiru talderen artean banatzea erabaki du Udalak. Harremanek eta Arrasateko Komite Internazionalisten ordezkariak, 1.600.000 pezeta jasoko dituzte; Manos Unidas-ek herrian duen taldeak, berriz, 1.100.000 pta. Iaztik Arrasateko taldeen artean banatzen da hirugarren mundurako zuzentzen den dirulaguntza, Arrasateko taldeak gehiago inplikatu asmoz.

Diru banaketa hiru taldeek aurkeztutako proiektuak aztertu ostean egin da. Harremanen proiektuaren helburua Angolan mertzedariak duten misioei laguntzea da. Gerra zibilak gogor astindu duen



Manos Unidasek Perura zuzenduko du laguntza.

tokietako ospitaleetan ari dira lanean mertzedariak, eta Arrasatek bidaliko den dirua ospitalerako gauzak erosteko erabiliko da. Komite Internazionalistenak, bestalde, Kubako Sagua La Grande herrian

dagoen eskola bat zaharberritzea du helburutzat. Abuztuaren hiru arrasatear izan dira eskola berritzen Komiteetako beste hainbat lagunekin batera, eta obra ia bukatuta geratu zen. Arazo sozialak dituz-

ten neska-mutuei zuzenduta dago eskola. Azkenik, Perura joango da Manos Unidas taldeari emandako dirua. Horiek aurkeztu duten proiektuan jasotzen denez, Limaren hegoaldean 20 ortu antolatu nahi dira. Era berean, nekazaritza organikoaren berri emango zaie ingurugiroaren zaintzearean garrantziaz ohar daitezen. Proiektua batez ere emakumei zuzendua egongo da.

Datozen egunetan hiru taldeetako ordezkariak hitzarmena sinatuko dute Udalarekin. Hitzarmen horren arabera, dirulaguntzaren kopuru txiki bat arrasatearrak sentsibilizatzeko ekintzak antolatzeko erabali beharko dute.

## FAMILI ETA GIZARTE HEZKUNTZARAKO ZENTRUA 96-97 IKASTARROAK

96-97ko ikastaroen hasiera urriaren leian.

Ordutegiak aukeran: goizez, arratsaldez eta gaeuz.

### GARAPEN PERTSONALEKO ALORRA

- Sexualitatea.
- Autoestima
- Eta abar.

### OSASUN ALORRA

- Geriatria
- Elikadura eta nutrizioa
- Lasaikuntza-masaia
- Eta abar.

### ALOR SOZIO-KULTURALA

- Alfabetizazioa
- Kultura orokorra
- Literatura
- Eta abar.

### TAILERRAK


- Altzarien Berriztapena
- (Bolilloak) Falfailgintza
- Eskulangintza
- Tapizgintza
- Sukaldaritza eta Gozogintza
- Eta abar.

### LANBIDERAKO TREBATZE ALORRA

- Lanerako orientabidea; lana lortzeko teknikak.
- Hazienda (BEZ, Errentaren aitortpena etab...)
- Kontabilitatean lehen urratsak
- Eta abar.



famili eta gizarte-hezkuntzarako zentruak  
centros de formación familiar y social




famili eta gizarte-hezkuntzarako zentruak  
centros de formación familiar y social

Santa Teresa, 12 Tfnoa. 79 04 59 ARRASATE

# RKUZ

## ***Udaberri-udako eskaintza berezia!!***



**MODELOAK  
ERDI  
PREZIOAN!!**



- **Logelak**
- **Egongelarako liburutegiak**
- **Sofak**
- **Gazteendako logelak**

# ALTZARIAK

**ARETXABALETA • Araba Etorbidea, 20 • Tfnoa. eta faxa: 79 23 51**



**Jose Elortza** arrasatearra eta **Dorleta Agiriano** eskoriatzarra Dorletan ezkondu ziren joan zen zapatuan. Bazkaria Gure-ametsa jabetxean izan zuten eta Costa Ricara joan dira ezkonbidaian. Zorionak!



Erromesaldian parte hartuz oinez, autobusez edo autoz arrasatear ugari hurbildu zen domekan Arantzazura. Eguerdiko 12etan meza nagusia hasi zen eta Jose Maria Astigarragak Arrasateko parrokoak eman zuen. Aurten iaz baino arrasatear gehiago animatu da

Arantzazura joaten, behar bada egin zuen eguraldi zoragarriak bultzatuta. Argazkian oinez joandako lau arrasatear agertzen dira, ezkerretik esku-mara: **Begoña Goitia, Maite Zabalondo, Montse Garcia** eta **Amelia Pierrugues**.



Mondrako emakumeek Errioxako Castañares herriko futbito txapelketan jokatu zuten asteburuan. Arrasatearrak Logroñoko Pacharan la Navarra taldearen kontra neurtu zituzten indarrak 7 eta 0 irabaziz. Mondragoetarren nagusitasuna erabatekoa izan zen

eta hiru sari jaso zituzten. Oroigarri bat, txapeldunaren garaikorra eta Susanak jokalaria onenarena. Argazkian aurten jantziko duten arropa berriarekin agertzen dira, **Astorek emandako jantzetan Ostantz** tabernaren publizitatea izango dute.



**Ricardo Lopez Rekarte** eta **Ana Santana** arrasatearrak Arantzazun ezkondu ziren zapatuan. Bazkaria Etxe-aundin izan zuten eta ezkonbidaian Tunezera joan dira. Zorionak bikote!



KLASE PARTIKULARRAK  
O.H.O.  
B.B.B.  
U.B.I.  
L.E.E.  
INJINERUTZA I,II.  
Unibertsitateko sarbidea.

- KONTABILITATE OROKORRA
- ATZERRITARRENTZAT GAZTELERA
- INGELESEZKO IKASTAROAK ATZERRIAN


- MEKANOGRAFIA ORDENAGAILUZ
- INFORMATIKA
- OFIMATIKA
- Testu prozesatzailea
- Base datuak
- Kulkulu orriak

- PROGRAMAZIOA
- Qbasic
- Turbo Pascal
- Turbo C
- Dbase
- Cobol...

**Gure erronka zure etorkizuna eratzea!**

Garibai, 6 B • Tfnoa: 77 11 06 • ARRASATE





**Erguingo jaiak zirela eta, zapatu arratsaldean mus txapelketa burutu zen. 31 bikoteen artean onenak**

**Pedro eta Enrike Gerrickabeitia anaiak izan ziren. Bigarrenak Jabi eta Guti. Hirugarren bikotea Romanek**

**eta Raulek osatu zuten eta laugarren postuan Moreno-Agirrebeitia geratu ziren.**



Txapela kentzeko moduko ikuskizuna erakutsi zuen **motorraren gainean Farias brasildarrak** domekan. Arrasate Motozale elkarteak gonbidatuta trialzale horrek era guztietako akrobaziak egin zituen Erguin kalean. Ikusleak pozik eta baita Farias brasildarra ere. Gainera datorren urtean berriro gustora etorriko zela esan zuen. Dena dela, pista handiagoa bat prestatzeko eskatu zion antolakuntzari mugimendu gehiago eta gauza harrigarriagoak egin ahal izateko.

## IZEN PROPIOAK

● **Aitor Lopez Rekar-te**, 21 urteko arrasatearrak 21 urte azpiko estatuko selekzioarekin jokatu zuen asteazkenean Zaragoza taldearen kontra. Selektzioarekin jokatzeko duen lehen aldia izan zen. Aitor Real B taldeko jokalaria da eta aurrendenboraldia Realarekin egin zuen.

● **Jon Andueza** kazetari arrasatearra ETBko *Kale gorrian* saio berriko aurkezlea da Klaudio Landa eta Iñaki Berasae-txerekin batera.

## Kilometroak 96 Lehiaketa

Kilometroen eguna iritsi artean, astero zozketatuko ditugu 2.000 pta.ko hiru agiri zirkuitoan bertan erabili ahal izateko. Aste honetako irabazleak dira:

- **Olaia Ruiz de Azua Zubizarreta.**
- **Nestor Arana.**
- **Ane Zuazubiskar.**

Zorionak hirurei eta gainontzekoei animo eta ea aste honetan aurkitzen duzuen Kilometroetako anagramatxo ezkutua!

# "PAL"

**burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

Industriaidea 1-0-4  
Tfnoa: 791844  
Faxa: 792941

ARETXABAETA

**S. CARRASCAL S.L.**

**Bertan egindako:**

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikaren erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tfnoa /FAX: 79 01 82

# ZURE PEUGEOT BANATZAILEA.



106




306



Cabrio



806



ZATOZ  
PEUGEOT  
GAMA BERRIA  
EZAGUTZERA!

205




406



605



Boxer



Zaldispe, 2  
ARRASATE

Tfnoa: 79 50 71 / 79 97 12

*Berrria!*  
ZURE PEUGEOT BANATZAILEA.

**EKOMOBIL**



**PEUGEOT**

# ARRASATEN, ZERBITZU OSOENA!



Mekanika, elektrizitatea...



Txapa, pintura.



Erakusketa eta salmenta.

**IRAILEAN URTEKO  
BEHERAPEN ONENAK!  
ZATOZ ETA EZAGUTU!**

**P 306 XN  
1.725.000 pta.**

(Aire egokitua eta direkzio  
lagundua)



V.O. ESKAINTZAK



**LEHOIAREN ESKAINTZAK**

## **AUTO IA BERRIEN STOCK HANDIA**

<b>Audi 80</b>	Hilean 14.300 ptatik. aurrera.
<b>Renault 19 TXI 110 z.</b>	Hilean 19.122 ptatik. aurrera.
<b>Fiat Uno 70 VI-0</b>	Hilean 13.180 ptatik. aurrera.
<b>Ford Escort CLXD</b>	Hilean 21.247 ptatik. aurrera.
<b>Citroën Xantia</b>	30.000 km. Hilean 33.333 ptatik. aurrera.

**Peugeot modelo eta prezio desberdinak.  
SARRERARIK GABEKO FINANTZAZIOA**

**Berria!**

ZURE PEUGEOT BANATZAILEA.

**EKOMOBIL**



**PEUGEOT**

# Urtebete udal gobernuan, urtebete oposizioan

**U**rtebete inguru pasa da Herri Batasunak eta Ezker Batuak akordioa lortu eta Udal Gobernuaren eratu zutenetik. Hori dela eta, aipatutako denboran Udaletxean egin den lanari buruzko iritzia jaso izan nahi dugu, alderdi bakoitzeko burua elkarrizketatuz. Era horretan ondorengo lerroetan, Xabier Zubizarreta, Jose Mari Loiti, Ignacio Jimeno, Isabel Gallastegi, Joseba Ugalde eta Antonio Palaciosen hitzak irakurri ahal izango dituzue.

Beñardo Kortabarria


## Xabier Zubizarreta

- Ona izan da EBa eta HBren artean egindako lana?

- Kontuan hartuta hauteskundeetako emaitzak eta Udaletxe honetan alderdi politikoaren artean egon diren aukerak, Herri Batasunak eta Ezker Batuak egin zitekeen gauza bakarra egin dute: gobernatu. Maila horretan urtebete hau normala izan da, azkenean lortu egin dugu Arrasateko Udaletxeak dituen arazoei aurre egiten joatea. Balorazio kualitatiboa herritarrek egin beharko dute, zenbateraino hobea edo txarragoa izan den. Horren gainera beste balorazio bat dago, eta zera da: tripartitoak egin duen planteamendurekin eta sortu duen egoera atipiko edo xeble horrekin, legislatura honetan gehiengoak osatutako gobernu bat egiteko aukera galdu dela.

- Eta oposizioaren lana nola baloratuko zenuke?

- Gehiengo moduan definitzen diren batzuk oposizioan egotea ez dut uste zintzo jokatzeko denik. Legislatura honetan gehiengo bat osatzeko aukera oso onak egon dira, baina alderdi politiko batzuren interes parti-



**“Onartu den aurrekontua bere egituran, gehiengan, urtero egiten den moduan elaboratutako aurrekontua da”**

kular batzuk herriaren interesen aurretik jarri direnez egoera honetara iritsi gara, eta uste dut jarrera hori salatu egin behar dela. Arrasateko Udaletxean ez gaude egon gitezkeen bezain ondo, gobernuan falta diren alderdiengatik.

- Gehiengo hori lortu ez denez, ez zaizu burutik dimisio asmorik pasatu?

- Dimititu zergatik?

- Esate batera, oposizioaren aurrekontua gestionatu behar izateagatik.

- Ez, hori ere ez da gertatzen eta. Ez da egia gu oposi-

zioaren aurrekontua gestionatzen gabiltzanik. 1996ko aurrekontuekin gertatu zena, uste dut benetan oposizioak modu erridikulu batean planteatu zuela, eduki barik eta forma batzuek beteaz bakarrik. Inondik ere ez gintuzten eraman geurea deitu genezakeen aurrekontua zuzentzera. Onartu den aurrekontua bere egituran, gehiengan, urtero egiten den moduan elaboratutako aurrekontua da. Azken momentuan nahi izan zuten horrelako maniobra bat egitea, adierazi guran eurak direla agintzen dutenak, baina agindu nahi duenak ez du oposi-

zioan egon behar. Ez dakit legislatura osoa horrela jarraitu behar dugun. Zoritxarrez ez dago nire eskuetan hori ekidin edo ez.

**- Garatu diren eta garatuko diren gairik inportanteenak?**

- Zalantza barik EBZ, hori izan daiteke legislatura hone-tan burutu den gai nagusia. Hortik aparte eskuartean erabili ditugun gauzen artean, Zerrajerako orubean dauden proiektuak aipatu behar, Uhar-kapeko gaia ere hor dago eta apurka apurka gaudituz doa, nahiz eta Udaletxeari jarri dituen dirutza izugarri horiek berreskuratzea geratzen zaion oraindik. Zerbitzu kultural eta sozialetan tonu on batean jarraitzen dugula esango nuke, eguneroko errealtaterako ego-kituz eta hobetuz. Beste gai garrantzitsu bat Akei itxia izango da, zorionez gainera Diputazioak erraustegirik ez egiteko erabakia hartu du. Kiroldegiko erreforma ere hor dago, nahiz eta ez izan aurrikusitako zerbait. Ospital zahar-reen kulturagunea sortzeko ikusi egin behar negoziaketan bidez aurten lortzen dugun norabait iritsi eta obrekin has-tea. Jubilatuekiko egoitza berriek ere begibistan ditugu, baina momentuz hor geratu zaizkigu eskuartean, ezinegin-da aurrekontuen inguruan egon den eztabaidagatik.

Egitasmo orokorraren garapen prozesuak, arkitek-toaren heriotzaren ondorioz atzerapen bat jasan du. Orain egutegi berria egin dugu eta helburua da hemendik urte-betera behin behineko ones-pena lortzea. Beste gai bat Takoloko bidegurutzearena da, eta Diputazioarekin harre-manetan gaude ea behingoz konponbidea ematen zaion, trafiko aldetik Arrasatek duen arazo larrienetarikoa da eta. Horrekin batera, Bedoñako bidea hobetzea eta Eroski aurreko bidegurutzearen kon-ponketa aipa daitezke. ■

## J. Mari Loiti

**- Urtebeteko gobernu taldearen balorapena?**

- Gobernuak ardua handi-agoa izan du oposizioak egin dezakeenaren aurrean, euren egin beharretan baino. Gobernuak, HBk esango nuke, denbora guztian gauza bera esan du: ez zaiela gober-natzen uzten. Errealitatea kon-trakoa da, gobernatzen uzten zaie eta. Aurrekontuetan opo-sizioarekin akordio batera ez iristek dena esaten du gober-nuaz. Hori ez da gobernuak.

**- Eta oposizioaren lana nola baloratzen duzu?**

- Herriaren alde egin nahi dugu, proiektu handien alde-ko lanean gabiltza. Urtea bukatzen denean eta zer egin den ikusten denean, orduan baloratu beharko gaituzte.

Udaletxean, ekintza eta batzorde guztietan egoten gara, Gobernu Batzordean izan ezik, hor ez dugu boto-rik eta. Batzordeetan betik gure programaren arabera jokatzeko dugu, eta esango nuke jarrera konstruktibo batez egoten garela.

**- Zergatik ez zara alkate?**

- Hori beste batzueri gal-detu beharko litzaieke. Nor-baitzuk, seguruen kanpoko presioen eraginez, ez zuten aurrez emandako hitza bete.

**- Zeintzuk?**

- Ez dakit. Atentzioa dei-tzen duen zerbait da, nor izan den ez jakitea, edo inon ez argitaratzea hitza bete ez zute-nen izena. Norberak eraman beharko du hori bere kon-tzientzian.

**- Bozketarena alde batera, urtebete honetan zentsura mozioaz ere hitzegin da baina ez da aurkeztu...**

- Legearen arabera, zen-tsura mozioa aurkezteko gehiengo behar da, gutxie-

nez 11 sinadura. Ez da aur-keztu alderdi batek ez duela sinatu. Arrazoiak? eurek jakingo dute.

**- Zein alderdik?**

- Arraroa iruditzen zait galdetzea, jakina da EA dela.

**- Ez nekien, horregatik gal-detu dizut. Lan kontuetara itzuliz, aurrera eraman diren gairik inportanteenak?**

- Nire ikuspuntutik aurre-ramaten ari garen lan inportanteena CIEarena da, formakuntza ez arautuaren barruan aurrepausu galanta delako. Gainontzean, zori-tzarrez, esango nuke aurten ez dela apartekorik egin; izan ere, hainbeste garrantzia eman zaion, CEIa gaur egun orain-dik ez dago ofizialki osatuta, hemendik gutxira osatuko den arren. Pozik gaude proiektu handi batzuekin, bere egu-nean HB aurka agertu zen gai-nera, Bailarako Ospitala edo CIE bezalakoak.

Lanean ari gara aurre-

kontuetan ezarritako beste proiektu batzuekin. Arrasa-tek lur industrialak behar du, HBk ezetz esan arren eta EBaren jarrera ez ezagutu arren. Nolabait enplegua eta lanpostuak sortzearen alde-ko apustua egin nahi dugu.

**- Aurrera begira nondik jo beharko litzateke?**

- HBk ez du gehiengo bat lortzeagatik ezer egin. EAJ bezala ulertzen dugu derri-gortuta gaudela programan hartutako konpromezuak betetzera. Edozein modutan, ez du balio esateak "ez digu-te gobernatzen uzten"; hori ez da egia, erosotasunez gober-natzen ari dira. Beste kontu bat da esatea "ezin dut nik nahi dudana egin", baina horretar-ako dago demokrazia eta horretarako botoak. Zine-gotzi guztiek dugu negoziat-zeko beharra herriaren one-rako, gaur egungo egoeran bere programa aurrera eraman nahi duenak zinegotzi guz-tiengana jotzen duelako, nego-ziatzera derrigortuta gaude.

**- Horrek esan nahi du oraingo egoerari buelta ema-teko ahaleginak egin behar dituzuela?**

- Ez da logikoa gehiengo oposi-zioan egotea, erre-alitatea da hori. Zer egin behar dugun? bakoitzak ahalegin bat egin behar du hori ger-ta ez dadin. ■

**"Zoritxarrez esango nuke aurten ez dela aparteko gauzarik egin"**





## Ignacio Jimeno

- Zer erizten diozu urtebeteko gobernu taldearen lanari?

- Hitz gutxitan, balantzea oso negatiboa dela. Udaltxean ez da gobernatzen. Aurreko bi legealdietan, HB, EAJ, eta EA egon zirenean, bakoitza bere aldetik ibiltzen zen. Ez zegoen talde bat, bakoitzak nahi zuena egiten zuen bere arloan, baina egiten zuen.

Legealdi honetan asmoa zen gobernu plangintza bat egin eta hura garatzea, hori zen tripartitoaren helburua, programa orokor bat garatzea, baina ez zen posible izan. Alkatetza lortuta HBk derrigorra zuen gobernu plangintza bat aurkeztea gainontzeko alderdiei eta hori ez da gertatu, guregana adibidez ez zen ezer planteatzera etorri. Ezker Batuarekin akordioa lortu zuen, baina itxura baten ez da oso finkoa, badirudi eta bakoitza bere bidetik doala.

- Zertan antzeman duzu?

- Normalean HB eta EBA ez dira bat etorri kasu askotan, esate batera frontoiaren kasuan edo garraioaren kasuan. Kanpotik begiratuta

**“Gure lanak oztopo handiak ditu, proposatzen duguna gero Gobernu**

**Batzordetik pasa behar denez, hor geratu egiten da, eta gainera gu errudun”**

ez dirudi lotura handiegia dutenik. Hori da HBk egiten duena normalean, bere helburuen bila joan besteenak kontuan hartu barik.

- Dena den oposizioak badu gehiengo bat...

- Gure lanak oztopo handiak ditu, proposatzen duguna gero Gobernu Batzordetik pasa behar denez hor geratu egiten da, eta gainera errudunak gu izaten gara.

- Oposizio talderik bada-go?

- Bai, bai. Tripartitoak funtzionatzen du eta orain arte ondo gainera.

- Botoa ematerakoan izan ezik...

- Horiek gauza pertsonalnak izan ziren. Bi lagunek zuriz eman zuten botoa, baina hori ez da alderdien joera. Tripartitoa astean behin edo bitan biltzen da, eta proposamen guztiak aztertzen dira. Gainera, esan beharra dago informaziorik ez dugula izaten. Esate batera Eroski inguruko proiektuaren berri zehatza duen bakarra alkatea da, hirigintza batzordean berak proiektuaren zirriborro bat egin zuen eta hori da guk dakiguna.

- Batzordeetan lan konpromezurik hartzen duzue?

- Batzordeak informatiboak dira. Batzorde denetan dago arduradun bat, funtzionari bat, eta berak proposatzen duena normalean da onartzen dena. Guk iritzia azaldu, eta aldeko edo kontrako iritziarekin joaten da Gobernu Batzordera. Gero han erabakitzen da. HBk isiltasunaren legea erabiltzen du, inork ez badu ezer esaten suposatzen du baietz eta erabakia hartu. Askotan, hainbeste gairen aurrean, informazio barik ezin da ezer esan, baina horrek ez du esan nahi norbera ados dagoenik. Hori da gure arazoa.

- Hala ere, ez da oso eroso inori norberaren aurrekontuak ematea gestioatzeke agindurekin batera?

- Gure asmoak aurrera eraman nahi ditugu, eta kontrolatu beharra dugu. Alkatea goizetik gauera egoten da Udaltxean, teknikoek batzorde informatiboetan aurkezten dituzten gaiak berak emandakoak izaten dira. Adibide bat: Ospital zaharra. Orain bi hilabete izan genuen azken informazioa eta harrez gero ez dakigu ezer. Noiz arte? beste egun batean alkateak bapatean gaia atera arte. Hori gai gehienekin gertatzen da.

- Zeintzuk izan dira urte honetako gairik inportanteenak?

- Uharkapeko gaia, arrastearroi oso garestia ateratzen ari zaiguna, eta ikusi egin behar berreskuratuko dugun edo ez hor jarritako dirutza. CEI gaia aipatuko nuke ere.

- Aurrera begira?

- Erguingo egoitza edo zentro zibikoa, lur industrialak, alde zaharraren peatonalizazioa, trafikoaren arazoa, aparkalekuak, garraio publikoa, Udaltxeko zerbitzuen hobekuntza... hori izango litzateke. ■

## Isabel Gallastegi

- Urtebete pasa ondoren, zein balorazio egingo zenuke udal gobernu taldeari buruz?

- Lehenengo esango nuke egoera berri bat sortu dela, orain arte bizi izan dugunaren ondoan oso desberdina: gehiengo oposizioan egoeta. Gobernuaren lana nola baloratzen duan? uste dut gobernuarena baino, HBren lana dela, EBak nire ustez oso egin behar murriztak ditu eta. Gobernu Batzordean adibidez, hiru partaidetik bat da EBkoa, orduan ez dakit noraino eraman dezakeen EBak bere estrategia Udaletxe honetan.

- Eta oposizioaz zer?

- Orain arte gobernuan egon garen bitartean izan dugu PSEren oposizioa. Ez gobernura eta ezta batzorde-etara ere ez ziren etortzen eta plenoetan antzera. Orain, berriz, oposizioa desberdina da, lanean ari da, bere iritziekin datorrena onartuz, ez datorrena kritikatzuz eta bere kriterioak mahai gainean jarritzuz, aurrekontuetan orain gertatu den bezala.

- Ondo hirukoaren barruan?

- Politikan horrelako egoeratan sartzen zara batzuetan. Gu hiru alderdi gaude orain, bakoitzak dauka bere lehen-tasunak eta bere ikuspuntuak, izaten dira tirabirak... baina esan dezakegu hirukoak funtzionatzen duela. Gainera Arrasaten gertatu zen guztiarekin hirukoak beste giro bat dauka.

- Oso desberdinak dira gobernu lana eta oposizio lana?

- Guztiz, gobernuaren lanean funtzioak dituzu, egin beharrak, medioak, beste instantzia batzuetan atea jotze-

ko beste zer bat. Ez zara bakarririk zinegotzia, Arrasateko zinegotzia zara eta aldi berean ez dakit zein batzordeko lehendakaria. Oposizioan egonez gero, beti zara oposizioko zinegotzi triste bat. Hala ere, oposizioak badu bere grazia, betik informazioa beste bide batzuetatik lortzen ibili beharra, proiektuak norberaren kabuz lantzen ibili....

- Beste bide batzuetatik ibili beharra aipatu duzu... oztopoak izaten dituzue informazioa aurkitzeko?

- Normalean Udaletxera informazioren bat sartzen denean, hura ezagutzen lehen alkatea izango da eta bere taldea, eta beti dago informazioa zabaltzeko modu bat edo beste bat. Espedienteak eta iriak dira, norberak nahi duena ikusteko, baina atzetik joaten den azalpena ezagutzeari gehiago kostatzen da lortzea.

**“Egoera berri bat sortu da, orain artekoaren ondoan oso desberdina: gehiengoa oposizioan egotea”**



EA

- Urtebete honetako gairik inportanteenak eta martxan daudenak.

- INEM hona erakartzea edo bertan jartzea garrantzitsua izan da niretzat. Aurrekontuen inguruan sortu den eztabaida, eta azkenean onartutakoak EAren kriterioekin nolabait bat datozenak izatea. Orokorrean, gainera, inportantea izan da industria arloan sortu den dinamika osoa, CEIa, industrialdea....

- Aurrekontuak aipatu dituzenez, gestioa udal gobernu taldearen gain utzi duzue?


- Kontua ez da “hartu gure aurrekontuak eta zuk gestionatu”. Guk jarraipena egin behar diegu, gaiak landu, eta ahal den neurrian batzordeetan azaldu. Gure oposizioa ez da “hartu gure aurrekontua eta orain gestionatu eta egin nahi duzuna”, horrek ezer ez egiteko atea ireki dezakeelako.

- Hemendik aurrera nondik joko beharko luke Udalak?

- Bultzatu beharreko gauza dezente dago: erdi geratuta dagoen egitismo orokorra. Ospital zaharraren konponketa, agertu eta desagertu egiten den gaia da eta, ez du aurrera egiten. Trafikoa ordenatu, gruaren arazoa. Lur industrial lortu beharra dago eta gestionatzen hasi. Badago hainbat gai.

- Azkenik, galdetu egin behar, zer moduz zure kargu berrian?

- Ia estrenatu barik, bi pleno maratonianotan egon naiz besterik ez. Parlamentoa oso desberdina da, arazoak beste maila batean aztertzen dira, barruko funtzionamendua oso arautua dago... esperientzia positiboa izango delakotan nago. ■



**“Espero dut hirukoak akordioaren bidean sartzea”**

IU-EB

## Joseba Ugalde

- Nolako lana egin duzue urtebete honetan?

- Balorazioa positiboa da, oso gauza inportanteak dituelako. Alde batetik esan behar alderdi bi gaudela gobernuan eta zortzi lagun hamabi presidentzia eramateko, eta hori lan gogorra da. Bestetik 3.000 milioiko aurrekontu bat aurrera eramatea, eta Udaletxean hainbeste jende eta hainbeste departamentu aurrera eramatea uste dut herriak baloratu behar duen gauza dela.

Uste dut gobernuak aurrekontu zituen aurrekontuak oso onak zirela, kontuan edukitu genituela herritarren beharrik, jubilatuekin egon ginen, elkarteekin.... Aurrekontu haiek ezin izan genituen aurrera eramanean tripartitoak blokeatu zituelako; orain beste aurrekontu batzuekin gabilta, baina gauzak aurrera eramanean behar direla pentsatzen dugunez, nahiz eta geure aurrekontua ez izan, erresponsabilitate hori badugu, herriaren alde lan egitea. Horregatik jarraitzen dugu aurrekontu horrekin.

- Eta oposizioaren lana nola ikusten duzu?

- Hirukoak porrot egin du. Lehenengo ez zen onartu euren alkategaia, batzordeak blokeatu zituzten ondoren eta hura ere ez zuten aurrera eramanean behar zen moduan. Laupabost hilabete pasa zituzten gero batzordetan lana ganoraz egiten, baina ondoren gobernuak blokeatzen hasi ziren, eta uste dut hori ez dela ona, ez herriarendako, ez alderdiendako eta ezta Udaltxearendako ere. Alderdiak jarrera erresponsablea eduki behar dute, gobernuan sartu nahi ez badute hirukoaren barruan kontraesanak dituztelako, gutxienez gobernuari lana egiten utzi behar zaio. Eta ez eurek nahi duten moduan, akordio eta elkarrizketa jarrera batez gain. Hirukoak ez du hori egin, hirukoak gobernuaren ahultze politikak egin du, alkatea dimisioa aurkeztera behartu guran. Lortu ez duenez, hirukoak zerbait planteatu behar luke. Espero dut hemendik aurrera hirukoak akordioaren bidean sartzea, eta bestela uste dut herriak zerbait esan beharko liokeela hirukoari. Ezinezkoa da gobernuari

berarena ez den aurrekontu bat inposatu, oposizioan egon, eta herriaren aurrean bakarrik agertu somatzen denean agerpen horrek politikoki prestigio bat edo boto batzuk eman-go dizkizula; oster, popularrak ez diren erabakien aurrean gerizpetara joan. Hirukoa-aren jarrera Udaletxearendako txarra da, gobernuarendako ere bai, baina kaltegarriagoa herriarendako.

**- Sintonia ona dago HB eta EBaren artean?**

- Bai, hasieran gai batzuen aurrean jarrera desberdina eduki genituen, baina bilera dezente egin ondoren akordio on batera iritsi ginen; ez bakarrik oraingorako, baita epa ertain eta luze baterako ere.

**- Zinegotzi berria zara, zer nolako esperientzia da?**

- Labur labur esango nuke lan handia dagoela, ordu piloa sartu behar dela, eta jendearekin harreman zuzena beharrezkoa dela.

**- Zein gai azpimarratuko zenituzke?**

- Udaletxean denbora asko daramatenek beharbada ez dute berdin ikusiko, baina nire ustez aurrekontuaren gaia izan da garrantzitsua. Lan ona egin da hor, aurrera atera ezin izan genituen gure aurrekontuak oso onak ziren, baina hauekin ere egin daiteke lan ona. Zehaztuz, aurrera begira uste dut badugula erronkarik: etxebizitzaren arazoa, Zerrajerako orubea, garraioaren gaia, jubilatuen egoitzak, eta CEIaren gaia enpleguari bultzada bat emateko. ■

**Antonio Palacios**

**- Urtebeteko lanaren ondoren, zein balorazio egin daiteke udal gobernuaren lanaz?**

- Aurrez pentsa zitekeena izan da. Lana egin dute, baina ez oso era produktiboan. Eurek egunean eguneko bizi dute, ez dute 4 urteetara begira proiektu bat. Orain gobernu dute, ez beste ezer.

**- Oposizioaz zer?**

- Oposizioak oraindik lan bat du egiteko, alkatetza bere tokian jarri eta nolabait estalitako gobernu lan bat aurrera eraman. Izan ere, oposizioak du gehiengoa eta hori ez da logikoa. Gobernu taldeak kontuan hartu behar zuen gutxiengoa dela eta bere unean dimisioa aurkeztu behar zuen, ez delako logikoa oposizioak emandako lana berak egitea.

**- Eta udal gobernu - hirukoa tartean, non dago PP?**

- Errealitateari begiratuta PPk ezin du inolaz ere erabaki nor den gobernu eta nor oposizioa. Normala denez, PPk bere ideiak defendatzera jo behar du.

**- Eta zuen lana?**

- PPren lana ez da erraza Arrasaten, jendeak oraindik beldurra duelako PPkoekin harremanetan jartzeko. Komunikazio eta informazio falta bat dago, jendeak ez duelako guregana askatasunez jotzen arazo bat konpondu nahi duenean.

**“Udaletxean herriarentzat kaltegarri den borroka politiko bat dago”**



**- Edozein modutan, zure lana ez da plenoetara etortzera mugatzen?**

- Bai jakina, baina jendeak badaki ez naizela Arrasatekoa. Badakit ez ditudana ondo ezagutzen Arrasateko arazoak, eta horri gaineratzen badiozu jendeak ez duela zuregana jotzen bada-kielako erabakiak hartzerakoan ez duzula eraginik... Plenoetan egotea derrigorrezkoa dela uste dut, baina ez da hor egotea bezala.

**- Gai zehatz garrantzitsurik aipatuko zenuke?**

- Arrasateko Udaletxean gai guztiek dute kutsu politiko gogorra, ez dira egiten herritarrendako onak direlako, bakoitzak bere alde egiten du. CEIa inportantea da, baita beste proiektu batzuk ere, baina sakon

sakonean herriarentzat kaltegarri den borroka politiko bat dago. Adostasun maila handiagoko dugula hirukoaren aurrekontuarekin? ba bai, errealitatearekin zerikusi handiagoko du eta, baina politizazio kontu hori hor dago.

**- Etokizunari begira zeintzuk izan beharko lituzke lehentasunak?**

- Begira, Udalak ez dio heldu oso gai garrantzitsuei: tolerantzia, elkarbizitza eta errespetoari. Udalak ez du aurrerapausurik eman gai horietan eta nire ustez berak bultzatu beharko lituzke. Ez da ona HBk Arrasateko alkatetza izatea. Horregatik dei egin nahi diet oposizioko alderdiei, gai horren inguruan jarrera zehatz bat har dezaten. ■

**GOROSTI**  
*Jatetxea*  
**MENUA • PLATER KONBINATUAK • KARTA**  
 (Eskola Politeknikoaren ondoan)  
 Arimazuri Plaza • Tfnoa: 77 06 07 • ARRASATE

**BERGARA PIEL**  
**10. urteurrena ospatzeko prezio ezin hobekak!!**  
*Pecari* alkandora **18.900 pta.**  
 Puntuzko multzoa **6.900 pta.**  
 Espaloia, 6 • BERGARA • Tfnoa: 76 20 70



**Etxe Aundi**  
*Hotela\*\* Jatetxea*



Torreauzo, 9  
 Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90  
 OÑATI



**Gaur ez bada...  
 bihar ezkonduko  
 zara!**

**Ospatu zeure  
 ezkontza  
 Etxe Aundi  
 jatetxean  
 (250 lagunendako  
 aretoak)**

*Kontsulta itzazu  
 1997rako menu berriak,  
 ezkontzako opari batez  
 txundituko zaitugu!*

# Harpidedun: berri edo oparitu harpidetza!



Arrasatek kanpo ARRASATE PRESS jasotzen dutenentzat. Arrasatek kanpokoentzat ARRASATE PRESS oparitu nahi dutenentzat.

Gure kontu korrontean **3.000 ptako** diru sarrera egin dezakezu **urriak 15a baino lehen** kontu korrante zenbaki hauetako batean:

- KUTXA 001026694.8 (Portaloiko bulegoa).
- EUSKADIKO KUTXA 001.002.7600 (Iturriotz kalekoa).

Ingresoa egitean garbi adierazi, mesedez, aldizkaria zeinen izenean jaso behar den.

ARRASATE PRESS atzerrian bizi den norbaiti bidali nahi badiozu zatoz gure bulegoetara eta bertan informatuko zaitugu.

**77 08 15**

Azoka Kalea, 1 • ARRASATE


# ETXE MOBEL

## MUEBLES ALTZARIAK

### LOGELETAN


espezializatutako merkatal zentrua

46 urteko esperientzia duten profesionalek sortu eta zuzendutakoa



Araba Etorbidea, 5  
(ESKATU Pabilioia,  
San Andres auzoa)  
Tfnoa. FAXA: 79 41 82  
ARRASATE

Larunbat  
arratsaldetan  
zabalik!!



Dena ETXEMOBELen. Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak,  
garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.


### BENETAN HARRIGARRIA!!

SASKIBALOIA

**Dominikar Errepublikako jokalaria atzerritar berria**

Urbina Maltzaga saskibaloitako taldeak erdi ziurtatu du atzerritar berriaren fitxaketa. Dominikar Errepublikako Moises Michael jokalaria izan daiteke taldea osatzeko falta den atzerritarra. Moisesek 21 urte ditu, 2,03 altuera eta pibot postuan jokatzen du. Iaz Estatu Batuetako Dixie Junior College taldean jokatu zuen eta aurten Liga Dominikarreko Los Minas taldean dabil. Jokalaria ez da izar handia baina bai langilea eta trebea saskiari begira. Hori da gainera, Urbina Maltzagakoek nahi duten jokalaria, talde lana ondo bete eta txapelketan erabakiorra izatea. Akordioa sinatzen bada, zapatuan edo datorren astean etor daiteke Moises Arrasatera.

Bestalde Arrasateko taldeak aurrendenboraldiko hiru garren neurketa jokatuko du igandean Albecon taldearen kontra. Partidua eguerdiko 12etan jokatuko da Iruñian. Denboraldia berriz, irailaren 29an hasiko du Urbina Maltzagakartzeko taldearen kontra.



Ibon Alzelai entrenatzaile berria.



Iñaki Iruñia taldeko aurpegi berria.

# Eskubaloikoek lehen froga gaindituta

Ibon Alzelai eskubaloitako taldeko entrenatzaile berriak 96-97 denboraldian bere jokariak izango direnak jokuan ikusteko aukera izan zuen zapatuan Trapaga taldearen kontra jokatutako norgehiagokan. Talde biek 23na berdindu zuten eta arrasaterak nahiko ondo aritu zirela esan behar. Ibon Alzelai entrenatzaile berria, eskubaloitako jokalaria izan zen Legazpiko La Salle taldean.

Entrenatzaile lanetan La Salle eta Urola Zumarraga taldeetan ibilitakoa da eta emakume taldeak ere entrenatu izan ditu. Aurten erronka berri bat izango du Arrasaten eta ilusioz dagoela esan du. Fitxaketa berriei dagoeneko ezin izan daiteke. Eskubaloitako taldekoek aurrendenboraldian egunero izango dituzte entrenamenduak Musakolako eta Iturripeko kantxetan. Denboraldia hasten denean berriz, astean hiru bider entrenatuko dute ilunkadan Ibon Alzelai eta Rosa Lasagabasterren gidaritzapean.

piko eta Oñatiko bi jokalarirekin ari dira frogetan beraz horietariko bat taldeko atezain berria izan daiteke. Eskubaloitako taldekoek aurrendenboraldian egunero izango dituzte entrenamenduak Musakolako eta Iturripeko kantxetan. Denboraldia hasten denean berriz, astean hiru bider entrenatuko dute ilunkadan Ibon Alzelai eta Rosa Lasagabasterren gidaritzapean.



## Zaldibar Txapelketak piztu ditu motorrak

Zaldibar Txapelketako ordezkariak eta jokariak astelehenean izan zuten bilera aurtengo txapelketako nondik norakoak zehazteko. Beti bezala Maritxu Kajoi biharamunean hasiko da txapelketa. Aurten izen emateak 18.000 pezeta balio du eta horretarako aukera irailaren 23 eta 24an egongo da arratsaldeko 7etatik 8.15ak arte Monterongo bilera aretoan. Arauei dagokionez ez da aldaketa nabarmenik izango lehen fasean gutxienez.

# Arrasateko atletak denboraldiari aurre egiteko gertu

Arrasate atletiko taldeak antolatuta atletismo frogak burutu ziren zapatuan Iturripeko pistan. 7urtetik 14 urtera arteko 78 korrikalarik hartu zuten parte. Adinen arabera banatu ziren frogak. Taldez talde hiru lehenen sailkapena honela geratu zen.



## 7 urte 200 metro

*Mutilak*

- 1- Unai Zubizarreta
- 2- Alvaro Barriocanal
- 3- Xabi Pavon

*Emakumeak*

- 1- Olatz Heriz
- 2- Marta Cuesta
- 3- Maialen Ramos

## 8 urte 400 metro

- 1- Ander Hernandez
- 2- Mikel Rodriguez
- 3- Mikel Sanchez

## 9 urte 400 metro

*Mutilak*

- 1- Julen Heriz

- 2- Mikel Uranga

- 3- Ander Letona

*Emakumeak*

- 1- Begoña Fernandez

- 2- Tania Nafarrete

- 3- Aitziber Alonso

## 10 urte 400 metro

*Mutilak*

- 1- Aitor Garcia

- 2- Alberto Nafarrate

- 3- Marcos Fernandez

*Emakumeak*

## 11 urte 600 metro

*Mutilak*

- 1- Iban Galan

- 2- Imanol Rodriguez

- 3- Asier Uribechebarria

*Emakumeak*

- 1- Ane Galindo

- 2- Tania Hernandez

- 3- Leire Carrera

## 12 urte 600 metro

- 1- Josu Jimenez

- 2- Gaizka Romero

- 3- Juan Antonio Merino

## 13 urte 800 metro

- 1- Jorge Mora

- 2- Diego De la Cruz

- 3- Lore Barquero

## 14 urte 800 metro

- 1- Fernando Nogales

- 2- Ibai Jurado

- 3- Iban Lopez.


Domekan berriz, Arrasateko hainbat atleta Bergarako San Martin herri krosean izan zen. Bertan egindako lanetik bi emaitza azpimarratuko ditugu. Infantiletan 14 urteko Fernando Nogalesek lortutako lehen postua eta alebinetan Josu Jimenezen urrezko domina. Asteburu honetan atleta gazteek ez dute txapelketako frogarik izango.



## Erguin pilota txapelketak badu irabazlerik

Erguin pilota txapelketako finalak izan ziren zapatuan Iturripen. Benjamin B mailan Urrutia eta Bolinagaren arteko norgehigokan Urrutia nagusitu zen 22 eta 17. Benjamin A mailan Losadak 22 eta 9 irabazi zion Agirrerri. Alebin B mailan Arriaranek 22-Ortuetak 19 izan zen azken emaitza. Alebin A mailan Zuazua 22 eta 17 nagusitu zen Ugartetxeren aurrean. Infantiletan Ormaetxea eta Dominguezaren artean, Dominguezek irabazi zuen 22 eta 6. Kadete mailan, Dominguez lehenaren arerioa Arostegi izan zen. Azkenean Dominguezek poltsikaratu zuen txapelketa 22 eta 13 nagusituz.

**PUB HAIZEA**



**TXOKO  
TABERNA**

*Eure berezitasunak pintxo eta mckau gozoak*

Zabale anaiak

Ehun Kilo

**KAXIANO**  
Markos landa

Gelatxo

Fanbaltz

**Drindots**

Aitzol Mujika


**Bittor Aiape**

Bertsolariak

Nahi ta nahiez

**AGAULTZ**

Furunda



Vrtz

**Kilometroa**

Trikitake!

**Elgoibar, uriak 6**

Zokoan

*Naiara ta Ines*

**ZIGOR GAZKEZ**

*Zubipeko Swing*

TRIKITIXA KONTRAIRO

Bedaxagar Urbeltz

Takolo, Pirritz, Porrotz

**Egan**

**TRABUKO**

Paperetik  
Plazara

Lau Behi

*Zator autobuz*



ZUBIAURRE, Elgoibar



Elgoibarko Ikastola



Ikastolen Elkarte



# Txatxilipurdiren aisialdi koktel freskagarria hemen da

**T**xatxilipurdi elkarteak ikasturte berriari gogoz ekin dio eta Arrasateko gazteentzat aisialdirako ekintzez betetako koktel freskagarria prestatu du. Haur Hezkuntzatik hasi eta 16 urtera tarteko gazteek daukate Txatxilipurdiren ekintzetan parte hartzeko aukera.

Haur Hezkuntzako 1go, 2. eta 3. mailako umeek "Tiki Taka"n eman ahal izango dute izena. Ekintza hau erdialdean, Santamainan, Erguinen, San Andresen eta Musakolan garatuko da. Haurrek irteera eta ibillaldietan parte hartu, natura eta ingurugiroa ezagutu, abestu, magia, antzerkia, tertuliak, sukaldaritza eta mozo-roak egin eta birziklapena zertan datzan ezagutu ahal izango dute. "Tiki Taka"n zapatu goizetan edo arratsaldetan ibiltzeko aukera dago, 10etatik ordu batetara edo 3etatik 6etara. 3.500 pezeta ordainduta edo ludotekako bazkide izanez gero 3.200 pezetaren truke eman



Umeek aisialdirako aukera ugari dute Txatxilipurdirekin.

daiteke izena urte osorako.

Lehen hezkuntzako lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren mailakoak berriz, "Txatxilikeixetan" ekintza berrian murgildu ahal izango dira. Txapelketak, puzgarriak, patinak, mendi irteerak, an-

tzerki tailerrak, gorputz espresioa eta jolas mugikorak, baserrietara bisitak, pailazoak, kirolak eta beste mila gauzatan aritzeko aukera izango dute zapatu arratsaldetan bertan izena ematen dutenek. Urte osorako matrikularen

preziosa "Tiki Taka" ekin-tzako bera da.

Apur bat nagusiago diren gazteentzat, Txatxilipurdi "Txatxiliartistak" ekintza prestatu du zapatu arratsaldetan. 11,12 eta 13 urtekoei zuzenduta dago. 11-12 urteko gazteek ordenagailuan ibili, brikolaia egin eta espeleologia eta orientazioa mendian ikasteko aukera izango dute. 12-13 urtekoek berriz, telebistako lana ezagutu eta kamarekin ibili, sexualitateari buruzko kezak argitu eta argazkiak egin eta errebelatua ikasi ahal izango dute. Preziosa 5.500ptakoa da.

Aipatutakoaz gain, Txatxilipurdiko GazteTxokoei ere zabalik jarraitzen dute San Andres eta Musakolan. Bertara 14-17 urte tarteko gazteak joan daitezke. Sebero Altubeko ludotekak ere gazteetxoen topagune izaten jarraitzen du. Arratsaldeko 5etatik 8etara dago zabalik eta beharrezkoa da bazkide izatea bertara sartzeko. Bazkide txartela 3.500 pezetaren truke eskura daiteke.

## C A M B R I D G E

EXAMINATIONS, CERTIFICATES & DIPLOMAS  
ENGLISH AS A FOREIGN LANGUAGE



University of Cambridge  
Local Examinations Syndicate

### MATRIKULAK:

**IRAILAREN 25tik URRIAREN 5era**

#### AZTERKETAK ETA DATAK

F.C.E. (First Certificate English) .....Abenduak 7  
C.A.E. (Cambridge Advanced English) .....Abenduak 12  
C.P.E. (Cambridge Proficiency English) .....Abenduak 11

Azterketa "Eibar" Arma Eskolan izango da.

#### INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK

Arrasate: PARLANCE .....77 06 83  
CIM-AHIZKE .....79 01 32

Bergara: ESPOLON SCHOOL OF ENGLISH .....76 03 53  
Durango: COMPUBIT ENGLISH INSTITUTE .....620 20 20  
Eibar: ANGLO-AMERICAN .....10 64 57  
INTERIDIOMAS .....12 10 03  
LINK IDIOMAS .....10 39 59  
UKITZE .....70 25 59  
Elgoibar: KEY ACADEMIA DE INGLES .....74 30 44  
KENSINGTON SCHOOL OF ENGLISH 74 02 36  
Ondarroa: HOWDY ACADEMY .....613 43 26  
Oñati: A & M SCHOOL OF ENGLISH .....71 61 37  
CIM-AHIZKE .....71 60 00

Cambridge Examinations Centre • Es-438

Z E R N A H I A G O ?

## Manoli Bengoetxea "Gili-Gili" jantzidendakoa

- **Diskotekazalea zara?** Ez, berbenazalea nahiz. Plazarik plaza ibiltzea gustatzen zait.
- **Ze musika gustatzen zaizu?** Rocka. Taldeak berriz, La Polla Records eta Mano Negra.
- **Modelo bat?** Naomi Campbell, Cindy Crawford eta Claudia Schiffer.
- **Badakizu josten?** Bai.
- **Zerk beldurtzen zaitu?** Kanpanzarko mendatea kotxez igotzeak.
- **Gustatzen zaizu Arrasate?** Ez dut gehiegi ezagutzen, baina hemengo jende gaztea oso jatorra iruditzen zait.
- **Noiztik ilea gorri?** Orain dela 3 urtetik.
- **Kolorez aldatzeko asmorik?** Udan larrosa jarri nahi dut.
- **Badakizu marmitakoa prestatzen?** Jakina.
- **Atletik zalea zara?** Bai.



- **Gizonari egin diozun azken oparia?** Kolonia bat.
- **Zer moduz jazten dira arrasatearrak?** Oso klasiko.
- **Fruta bat?** Txirimoia.
- **Barruko arropa zein kolorekoa?** Zuria.
- **Telebistako programa bat?** Ez dut telebista ikusten eta ikustekotan informatiboak baino ez.
- **Txikitan zer izan nahi zenuen?** Dendaria, beti gustatu izan zaizkit trapuak.
- **Negun zein kolore eramango dira?** Morea, berdea eta laranja.
- **Galdu duzun azken gauza?** Beti galtzen dut aterkina.
- **Idazle bat?** Atxaga eta Mario Benedetti.
- **Zer egiten duzu igandetean?** Euskal jairen bat dagoen tokietara joan. Izugarri gustatzen zait euskal giroa.



LORAMENDIN

%50

- Kamisetak
- Prakak
- Txandalak
- Sudaderak
- ...eta abar

BEHERA PENAK!

ZAPATILAK

%20-%50

AZKEN EGUNAK!

• ESAERA •

“Aholkurik onenak  
esperientziak eskaintzen ditu,  
baina beranduegi heltzen  
dira beti”

AMELOT HOUSSAYE

• JEROGLIFIKOA •



aton 91416  
nota a

Gertaera izugarria

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10					11		
12				13			14
15				16			
17			18				
19			20				

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Arrasate Irratiko hau-  
rendako saioa. 9. Nafarroako mendatea. 10. Ezer.  
11. Zerbait erretzen sortzen da. 12. Edertasu-  
naren jainkosa grekoa. 15. (Ald.) Jakoberen bede-  
ratzigarren semea. 16. Laga. 17. Homeroren poe-  
ma epikoa. 19. Kristo Ondoren laburdura. 20.  
Gatz asko duena.

**Bertikalak** 1. Dagoeneko. 2. Bururik gabe.  
3. Popa. 4. Ileaz mintzatuz, kizkurrik gabe. 5. Sexu  
maskulinoa duen animalia. 6. (Ald.) Erraz zati-  
tzen dena. 7. Nafarroako udalerria. 8. Donostia-  
ko disketxea. 13. Zalantza. 14. Arabako Ikasto-  
len Elkarte. 18. Zilarra.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Buruari hainbeste buelta eman-  
da neuronak desagertuko zaizkizu.

**Taurus** Inguruko guztiak beldurtzeko  
gai zara. Hori abildadea!

**Gemini** Kezkati zabilta. Arazoei  
lasai egin behar zaie aurre.

**Cancer** Zinemara joaten zaren  
bakoitzean lo hartzen duzu.

**Leo** Badira lan kontuak baino gauza  
garrantzitsuagoak.

**Virgo** Zure jenio txarra ez dago  
aguantatzerik.

**Libra** Datorren astean opor egun ba-  
tzuk izango dituzu.


**Scorpio** Maite duzun horrek ez  
dizula idazten? Beste bat bilatu.

**Sagitaris** Ametsetan egitea ondo  
dago, baina noizean behin lur hartu.

**Capricorn** Eguzkiarekin batera  
zuk ere indarra galdu duzu.

**Aquarius** Bizitzan oso garrantzi-  
tsua izango den laguna ezagutuko duzu.

**Piscis** Deabrua baino bihurriagoa zara,  
baina noizean behin bihotz ona duzu.



**weru**  
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2  
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia  
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95  
ARRASATE



Salterain

PVCko ate eta  
leihoez gain:  
Moketak jartzea,  
zoru arinak,  
kortxoak,  
Louverdrape  
kortinak,  
Kortinoba, textila...



## TELEBISTAREN TXOKOA



## Ezkontzak, afariak, kaleko giroa...

**H**ilerokoa izango den programa berri bat prestatzen ari gara ATBn. Saio horretan herriko giroari buruzko erreportaiak, arrasatearren ezkontzak, zilarrezko eta urrezko eztaiak eta herrian izaten diren bazkari-afariak jaso nahi genituzke.

Dagoeneko baditugu ezkontza batzuetako irudiak baina gehiago ere eduki nahi genituzke. Beraz, ezkontzera zoazten bikoteek ATBra deitu zuen ezkontzako irudi batzuk grabatzera joan gaitezen. Berdin lagun artean bazkari edo afariren bat egin behar duzuenok. Telefonoa: 77 05 65

## ARRASATE IRRATIA (FM 107,7)

Iaz arrakasta izan zuten irratsaioak berriro hasiko dira Arrasate Irratian. Goizeko programazioaz gain, gauean eta baita zapatuan ere egongo den zer entzun FMko 107, 7 frekuentzian.

Ostirala: KGB, gaueko 10etan  
Larunbata: Jailarai, goizeko 9.30etan.  
Zoroklasikoak, goizeko 11etan.  
Astelehenetik ostiralera: Goizora eta Bixaorduak

## SOLUZIOAK

**Horizontala:** 1. Jaitzari, 9. Azpitza, 10. Deus, 11. Ke, 12. Artodita, 15. (Ald.) Dan, 16. Uzi, 17. Iliada, 19. K.O. 20. Gazi.  
**Bertikala:** 1. Jadanik, 2. Azetalo, 3. Ipudi, 4. Liso, 5. Ar, 6. (Ald.) Zaitkor, 7. Aiez, 8. IZ, 13. Duda, 14. ALE, 18. Ag.  
**Jeroglifika:** Apokalipsia

## PROGRAMAZIOA



## 20 Ostirala

20.00, 20.30 eta  
21.00etan. **Berriak**

## 23 Astelehena

20.00, 20.30 eta  
21.00etan. **Berriak**

## 24 Asteartea

20.00, 20.30 eta  
21.00etan. **Berriak**

## 25 Asteazkena

20.00, 20.30 eta  
21.00etan. **Berriak**

## 26 Osteguna

20.00, 20.30 eta  
21.00etan. **Berriak**

## 27 Ostirala

20.00, 20.30 eta  
21.00etan. **Berriak**

## Urriak 6, Kilometroak Elgoibarren

Eta egun hori iritsi artean ARRASATE PRESSEK jokutxo bat proposatu nahi dizuete: **Kilometroak 96ko logotipoa izkutatu dugu** aldizkariaren orrialde batean. Aurki ezazu, eta kupoitxo bat adieraziz non dagoen. Asmatuz gero, Kilometroak 96k salmentan duen materiala zozketatuko dugu, trukean **2.000 pezetako balioa** duten agiriak emanez hain zuzen ere.

*Banoa, Banixe, Euskaraz, bai borixe!*



Izen-abizenak: .....

Telefonoa: .....

Zenbatgarren orrialdean dago logotipoa: .....

ARRASATE  
PRESS  
Azoka kalea, z/g  
20.00 ARRASATE

**Etxebizitzak**

- **Garajea alokatu** edo erosi egingo nuke Munar edo Larrea inguruan. Tfnoa: 77 01 70.
- **Ikasleendako pisua alokagai** Bizkaia etorbidetan. Tfnoa: 77 14 24.
- **Donostian bi lagun behar dira** pisua osatzeko. Prezio ona. Amaran. Tfnoa: 79 86 00 Alaitz.
- **Garajea salgai** Larringainen. Tfnoa: 79 78 07.
- **Bi seme-alaba dituen familiak pisua** alokatu nahi du. Tfnoa: 79 42 05.
- **Lokal bat alokatzen dut** erdialdean garaje moduan erabiltzeko modukoa. Tfnoa: 71 53 96.
- **Garajea alokagai** J. L. Iñarran. Tfnoa: 79 36 79.
- **Kontsulategi medikoa konpartitzeko daukat.** Aretxabaletako Industrialdean. Pabilioia F-0 behean. Aretxabaleta. Tfnoa: 79 06 82 eta 79 46 20.
- **Neska bat behar da pisua osatzeko** Gasteizen. Tfnoa: 79 31 73.
- **Pisua salgai** Uriburu kalean. 80 m<sup>2</sup>. Berogailua, ganbara eta garajeaz. Tfnoak: 79 25 96 eta 79 9941.
- **Aretxabaletako erdialdean** garajea salgai. Tfnoa: 79 69 61.
- **Donostian 3 logelako etxebizitza** alokatu egiten da. Tfnoa: 21 97 50.
- **Pertsona bat behar da** Donostian pisua osatzeko. Egia auzoan. Tfnoak: 71 46 52 / 79 08 21.
- **Arrasateko gazte talde** bat gara eta lokal bila gabiltza. Edozein egoeratan. Tfnoa: 79 68 75.
- **Etxebizitza alokatzen da** Bergaran. Jantzitza eta telefonoarekin. Tfnoa: 76 59 71.

**Lana**

- **OHOko euskarazko klase partikularrak** hartuko nituzke neure etxean. Tfnoa: 79 27 48.
- **Emakumea gertu etxeetan lan egin** edo umeak zaintzeko. Esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 27 48.
- **Andra gerontologian diplomaduna** eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 48 12.
- **Ingeles eta frantseseko klase partikularrak** ematen ditut prezio onean. Tfnoa: 79 50 99.
- **OHO, REM eta BUPeko klase partikularrak** ematen ditut. Tfnoa: 79 50 99.
- **Bi neska jator gertu arratsaldean lan egiteko.** Tfnoa: 79 52 37 edo 79 74 71.
- **OHOko klase partikularrak ematen dira.** Tfnoa: 79 94 04. Marijo.
- **OHOko klase partikularrak ematen dira.** Tfnoa: 79 06 39.
- **Mekanikan esperientziadun** 19 urteko mutila gertu lan egiteko. Tfnoa: 79 37 68. Juan.
- **Mutila prest kamarero lana egiteko,** esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 97 55.
- **Etxe, bulego, dendak, atarteak...** garbitzeko prest nago. Umeak ere zainduko nituzke. Tfnoa: 79 85 40.
- **Neska edo emakumea behar da** arratsaldean umeak zaintzeko 5etatik 8etara. Tfnoa: 77 04 21.
- **Esperientziadun neska prest dago** plantxa egiteko. Tfnoa: 79 42 05.
- **Neska bat behar da** bi ume txiki zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Dei egin 2etatik 4etara edo 8.30etatik 10etara. Tfnoa: 79 59 49.
- **Ingeleseko klase partikularrak.** Tfnoa: 79 02 11.

- **Esperientziadun neska** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tfnoa: 79 31 44. Mirian.
- **Neska bat behar da** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 33 21.
- **Kafetegia edo jatetxe baten** lan egingo nuke egun erdiz. Tfnoa: 79 23 58. Rosa.

**Salerosketak**

- **Estreinatutako gabeko Lur Hiztegi Enziklopedikoa** salgai. Tfnoa: 79 87 47.
- **Oso egoera onean dagoen Seat Ronda 1.2** salgai dago. 13 urte ditu. SS-S. Prezioa: 155.000 pta. Tfnoa: 79 09 52.
- **Kanping-karro denda salgai.** Tfnoa: 77 14 24.
- **Bulego altzariak salgai prezio onean.** Tfnoa: 79 65 25. Ana.
- **Fagor markako gas berogailua salgai.** Berria eta handia. Cibro markako berogailu japoniarra salgai. Tfnoa: 79 81 25. 9etatik aurrera deitu.
- **Irrati kontrolako 1/10 eskalako kotxea salgai.** Tfnoa: 77 01 83. Josu edo Luis.
- **Sanyo ECR 375 makina erregistratzailea salgai.** Denda batendako aproposa. Prezioa: 50.000 pta. Tfnoak: 79 25 96 edo 77 99 41.

**Denetarik**

- **Hiru txakurkume oparitzeko ditut.** Ama artzai belgijarra da. Tfnoa: 79 37 82.
- **Autoa konpartituko nuke** Gasteiza joateko. Egurdiko 2.15etan joan eta 9.00etan etorri. Tfnoa: 77 09 74.

**Aste Gazte**

**Bekak**

- "Fundación Empresa Publicas" urteroko beketarako deialdia egin du. Lizentziatuei zein diplomatuei zuzenduta eta 30 urte baino gutxiago izatea. Epea: urriak 4.
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, herri administrazioarekin zerikusia duten gai batzuk aztertzeko bost beka deitu du. Lizentziatuei zuzenduta. Epea: irailak 25.
- UPV/EHUko Zientzi Fakultateak, Ikerkuntza zientifiko tekniko arloko komenio kontratu edo proiektuetarako lankidetzak beka

deitu du. Kimika-zientzietan lizentziatuei zuzenduta. Epea: irailak 30.

**Lana**

- Zierbanako Udalak, Arkitecto tekniko bat kontratatzeko deia egin du. Epea: irailak 29.

**Ikastaroak**

- Euskal Dantza ikastaroa "Lore Gazteak" dantza taldearen eskutik. 15 urtetik gorakoei zuzenduta. Urriaren 11tik abenduaren 13ra. Ostiraleroko, 7etatik 8.30etara. Bikote mixtoek lehen-tasuna izango dute. Plaza mugatuak.

Matricula: 1.000 pta. Izen ematea, Gazte Bulegoan.

**Unibertsitaterako autobusak**

- Donostiara eta Bilbora, egunero joan eta etortzeko autobus zerbitzua "Aixola" ikasleen elkar-teak antolatuta. Iazko ordutegia eta prezioa. Interesatuak irailan zehar Gazte Bulegotik pasatu behar zarete izena emateko.

**Lehiaketak**

- "Gazteak eta Intsumisioa" VII. argazki lehiaketa. Bi kategorio: a) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak. b) 19-35 urte bitarteko edozein. Zuri-beltzean zein koloretan. Epea: urriak 11.

**"Ona da Unibertsitariok zientzia asko jakitea, baina pertsona heldu, arduradun eta solidarioak ere izan behar dute"**

**PEDRO LUIS ARIAS  
EHUKO ERREKTORETZAKO  
HAUTAGAIA  
(DIARIO VASCO)**

**Informazio gehiago:  
GAZTE  
ZERBITZUA  
Tfnoa: 77 00 65**



**FAGOR** 



### SUKALDE ALTZARIAK

Bañez Doktoea, 2  
(San Andres auzoa)  
Tfnoa: 79 18 92

### ELEKTRAGAILUAK

Iturriotz kalea, 15  
Tfnoa: 79 15 16



*Jose Aranzabal*



Eraikuntza berrien  
etxebizitzetarako  
deskontu bereziak.

1997

# MAVERICK


4x4



Espazioa eta erosotasuna.



Air-Bag.



125 zaldiko Turbo Diesela.

**MUGARRI**



Araba Etorbidea, z/g • Tfnoak: 79 07 44 / 54 • ARRASATE